PRESKRIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN AGIRIA
EITB-REN HEDABIDEETAN EUSKARAZKO INTONAZIOA HOBETZEKO PROIEKTUA
PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ



ESPEDIENTE ZK.: 2023.62

2023/09/26 (0. Bertsioa)

AURKIBIDEA

1. AURREKARIAK 3

2. XEDEA 4

3. ZERBITZUAREN IRISMENA ETA GARAPENA 4

3.1 1. FASEA: EGUNGO EGOERAREN ANALISIA ETA DIAGNOSTIKOA, ETA EITBRENTZAKO EUSKARAZKO INTONAZIO-EREDU BATEN DEFINIZIOA 4

3.2 2. FASEA: EITBRENTZAT DEFINITUTAKO EUSKARAZKO INTONAZIO-EREDUA EZARTZEA 5

4. ZERBITZUA EMATEKO GIZA BALIABIDEAK 6

4.1 BALDINTZA OROKORRAK 6

4.2 BALDINTZA PARTIKULARRAK 7

5. ZERBITZUAREN JARRAIPENA 8

6. LANAREN, GIZARTE SEGURANTZAREN ETA LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNAREN ARLOKO JARRAIPENA ETA ONARPENA 9

7. ZIGORRAK 9

8. HAUTAGAIEK AURKEZTU BEHARREZKO DOKUMENTAZIOA 9

8.1 C GUTUN-AZALA: BALIO-IRITZI BATEAN OINARRITUTA EBALUATU BEHAR DEN ESKAINTZARI BURUZKO DOKUMENTAZIOA 10

8.2 .- B GUTUN-AZALA: FORMULAK APLIKATUZ AUTOMATIKOKI EBALUATU DAITEKEENESKAINTZARI BURUZKO DOKUMENTAZIOA 10

1. AURREKARIAK

EITB Taldeak definitu eta EITB 2030 ESTRATEGIA dokumentuan jasotako ildo estrategikoen arabera, euskara da Taldearen lau nortasun-ezaugarrietako lehena.

Izan ere, gaur egun, EITB, euskarazko komunikazioaren erreferente nagusia izateaz gain, euskal gizarteak eredutzat dauka hizkuntzaren erabilerari dagokionez. Hori dena, EITBrentzat harro egoteko arrazoia da, eta baita erantzukizun handia ere, erakunde gisa une oro bikaintasun-maila mantentzea eskatzen diona.

1982an, Irrati eta Telebista Eskola jarri zen abian Donostian, non, etorkizuneko EITBrentzat lehen hizkuntza-jarraibideak landu ziren, eta bertako profesionalak izango zirenei, prestakuntza artistikoa eta linguistikoa eman zitzaien. 1991n, EITBko Zuzendaritzak ikerketa soziologikoetan espezializatutako erakunde bati, ETBren euskarazko bikoizketen hizkuntzari buruzko ikerketa bat eskatu zion.

Erakunde horrek egindako diagnostikoa hamar talde fokaletan oinarritu zen, eta, diagnostiko horretan oinarrituta, hizkuntza-proposamen bat prestatu zuen, gaur egun indarrean jarraitzen duena.

Bestalde, 1992an, EITBk euskara-arloko aditu bati hizkuntza-estiloko lehen eskuliburua egiteko enkargua eman zion, EITB Taldeko irrati eta telebistako albistegiei zuzenduta. Aipatutako eskuliburuak, EITBko Euskara Zerbitzuaren eskutik, jarraipena izan zuen 2007an eta 2012an.

Hizkuntza arloko gidaliburu eta jarraibide horietan, gutxien garatu den elementua prosodiarena da. Beharbada, hori da azken urteotan EITB Taldeko komunikazio-profesionalen artean intonazio-arazoak atzematearen arrazoia.

Hain zuzen ere, hutsune horri aurre egiteko, Unitate honek (proposatzaileak), EITBk hizkuntzaren erabilerari dagokionez hartu duen eginkizunaren ildotik, uste du beharrezkoa dela zerbitzu espezializatu bat hitzartzeko prozedura hastea, lehenik, egungo egoeraren diagnostikoa egin dezan, prosodia egokirako jarraibide berriak proposatuz, eta, horren ondoren, EITB taldeko profesionalekin prestakuntza-plan bat aurrera eraman dezan, EITBn entzuten den euskaran, intonazio hobea, finkatzea helburuz.

Alde horretatik, kontuan hartu behar da euskarak, beste edozein hizkuntza bizik bezala, etengabeko prestakuntza eskatzen duten aldaketa, zuzenketa eta eraldaketak jasaten dituela.

Horretarako, langileek baliabide egokiak izan behar dituzte beren hizkuntza-gaitasunetan aurrera egiteko, hobetzeko eta eguneratzeko.

Beraz, kontratazioak, ondoren zehazten diren baldintzetan, aukera emango dio EITB Taldeari:

- ✓ Intonazioari dagokionez, taldeko profesionalek, behin eta berriz egiten dituzten akatsak identifikatzeko.
- ✓ EITB Taldearentzat euskara erabileran intonazio-formulak identifikatzeko jarraibide objektiboak definitzeko.
- ✓ EITB Taldeko profesionalek euskararen "intonazioari" dagokionez dituzten gaitasunak trebatu, hobetu eta perfekzionatzeko.

Horretarako, lehen fasea bat definitu da, non EITB Taldearentzat egokitutako intonazio-eredu espezifiko bat definitu beharko den. Eredu hori definitu eta Erakunde kontratatzaileak baieztatu ondoren, bigarren fasean, erakunde kontratatzaileko langileei prestakuntza zehatzak emanez inplementatu beharko da.

Onartutako ereduan prestatu beharreko taldeen profila kontuan hartuta, ezarpen-zerbitzuak xede-talde bakoitzaren eta/edo erakunde kontratatzaileko profesionalen prestakuntza-beharretara egokitu ahal izango dira.

Horrela, Agiri honetan ondoren zehazten diren baldintzetan zerbitzu bat kontratatzen bada, bermatu ahal izango da Erakunde Kontratatzaileko langileek hizkuntza-gaitasunaren maila optimoa eta kalitatezko zerbitzu publiko baten mailakoa izango dutela.

2. XEDEA

Agiri honen xedea da baldintza teknikoak finkatzea EITB Taldeko komunikazio hedabideetan euskarazko intonazioa hobetzeko zerbitzu bat kontratatzeko. Zerbitzu horrek, proiektu baten bidez, egungo egoeraren diagnostikoa egin, eta intonazio-eredu bat zehaztu eta ezarriko du EITB MEDIA, S.A.U.-rentzat (aurrerantzean **EITB, EITB MEDIA, Entitate Kontratugilea** edota **EK**).

Horretarako, Preskripzio Tekniko Partikularren Agiri (PTPA) honetan ezartzen diren eskakizun eta baldintzen arabera eman beharko da zerbitzua, bai eta dagokion Administrazio Klausula Partikularren Agiriaren (AKPA) arabera ere, kontratazio honi dagozkionak, eta zeinetatik alderdi kontratugileen eskubide eta betebeharrak eratortzen diren.

3. ZERBITZUAREN IRISMENA ETA GARAPENA

Kontratazio honetan honako lan hauek egingo dira:

- ✓ EITBren euskarazko intonazio-egoeraren analisia eta diagnostikoa, eta EKarentzako intonazio-eredu baten definizioa (Proiektuaren 1. Fasea gisa azalduta)
- ✓ EITBrentzat definitutako euskarazko intonazio-eredua ezartzea (Proiektuaren 2. Fasea gisa azalduta)

3.1 1. FASEA: egungo egoeraren analisia eta diagnostikoa, eta EITBrentzako euskarazko intonazio-eredu baten definizioa

1. Fase honen barruan honako lan hauek egingo dira:

a. <u>EKren edukien analisia (irratia eta telebista)</u>.

Analisia egiteko EKren eduki hauek erabiliko dira:

a) Irratiko eta telebistako albistegi orokorrak: 20 ordu
b) Irratiko eta telebistako kirol albistegiak: 10 ordu
c) Irratiko eta telebistako programak: 20 ordu
d) Fikzio bikoiztua: 15 ordu

e) Dokumental bikoiztuak: 5 ordu

b. <u>EKarentzat euskaraz intonazio eredu egokia definitzea</u>

Analisi horren arabera, EKri, hurrengo esparruak kontuan hartzen dituen intonazio eredu bat proposatu beharko zaio:

a) Irratian eta telebistako informazioa
b) Bikoizketa

Definitu beharreko intonazio-ereduan, ezaugarri prosodikoak (azentua, etenaldiak, melodia, etab.) deskribatzeaz gain, kontuan hartu beharko dira galdegaia eta mintzagaia, hitz konposatuak, bokatiboak, izen propioak eta egoki daitezkeen beste elementu guztiak.

c. <u>EKak definitu eta onartutako eredua ezartzeko baliabideen prestakuntza.</u>

Entitate esleipendunak, 1. Fasearen lanen barnean, EKari hurrengo dokumentuak eman beharko dizkio:

- "EITB Taldeko Euskarazko Intonazio Eredua" izeneko txostena

1. Faseko lanak, gehienez, HAMASEI (16) asteko epean egin beharko dira, kontratua formalizatzen den hurrengo egunetik ahurrera.

Behin amaituta eta onartuta lehen faseko lanak, esleipendunak faktura bat jaulkiko du, Administrazio-klausula Partikularren Agiriaren III.1 ERANSKINAN (FORMULA MATEMATIKOAK) eskainitako eta esleitutako zenbatekoarengatik.

3.2 2. FASEA: EITBrentzat definitutako euskarazko intonazio-eredua ezartzea

Esleipendunak, Entitate kontratugileak 1. Fasean "EITB Talderako Euskarazko Intonazio Eredua" definituta eta onartutakoan oinarrituta,

EKak 1. FASEAN onartutako "EITB Talderako Euskarazko Intonazio Eredua" oinarriaren gainean, Ezarpen-Plana xehetasunez zehaztu beharko du esleipendunak, oinarri hauek kontuan hartuta:

- EKaren lantadeen profila.

  Prestakuntza jasoko duten profesionalen arabera BI (2) talde mota identifikatu dira:

  a. Bi (2) aurkezleko taldea.

  b. Zortzi-bederatzi esatari arteko taldea.

Ikastaroak ordu eta erdiko aurrez aurreko prestakuntza-saioetan oinarritu beharko dira, eta EITBk Bilbon, Donostian, Gasteizen edo Iruñean duen edozein egoitzatan egin ahal izango dira.

Adierazitakoarekin bat etorriz, urtean 108 prestakuntza-ordu eskatuko direla kalkulatu da, gutxieneko jarraibide hauek kontuan hartuta:

- Bi hilabeteko hiru txanda.

- Txanda bakoitzean hiru talde eratuko dira, (a.) edo/eta (b.) tipologiakoak, EaKren beharren arabera.

- Talde bakoitzak zortzi (8) prestakuntza-saio jaso beharko ditu guztira, ahal dela astean behin, ikastaroko bi hilabeteetan.

- 2. FASEKO lehen txandako saioak ez dira zuzenean prestakuntzara bideratuko, baizik eta proiektua erakunde osoan ezagutaraztera, inplementatu nahi den intonazio-ereduaren lerro nagusiak azaltzera eta ikastaroei buruzko informazioa ematera.

Entitate esleipendunak, 1. Fasearen lanen barnean, EKari hurrengo dokumentuak eman beharko dizkio:

- "EITB Talderako Euskarazko Intonazio Eredua"-ren Prestakuntza Plana (Urte osokoa)
- Planaren jarraipenari buruzko sei hilean behingo txostena.

2. Faseko lanak, gehienez, HAMABI (12) hilabeteko epean egin beharko dira, 1. Fasea amaitzen denetik aurrera.

Ezarpen-Plana (Urtekoa) urtero egin beharko da, kontratu-ekitaldi bakoitzeko lehen hilabetean.

Esleipendunak hilean behin faktura bat jaulki beharko du, hilean egindako unitateen (prestakuntza-orduen) arabera eta Administrazio Klausula Partikularren Agirian, III.1 ERANSKINEAN (FORMULA MATEMATIKOAK) eskainitako prezioen arabera.

4. ZERBITZUA EMATEKO GIZA BALIABIDEAK

4.1 Baldintza orokorrak

Zerbitzua emango duten langileak Erakunde Esleipendunaren (kontratista) mende bakarrik egongo dira, eta berarenak bakarrik izango dira enplegu-emaileari dagozkion eskubideak eta betebeharrak.

Ondorio horietarako, enpresa kontratistak ondorengo betebeharrak hartuko ditu bere gain:

1. Adjudikazioa eskuratzen duen erakundeari (kontratistari) soilik dagokio langileak aukeratzea; langile horiek plegu honetako hurrengo klausulan eskatutako titulazio eta esperientzia-betekizunak izan beharko dituzte, eta kontratua gauzatzeari atxikitako lantaldearen parte izango dira. Horrek ez du eragotziko EKak betekizun horiek betetzen direla egiaztatu ahal izatea.

2. Esleipendun erakundeak (kontratistak) lantaldea egonkorra izateko eta, aldaketarik gertatuz gero, haiek bakanak eta arrazoituak izateko ahalegina egingo du, zerbitzuaren funtzionamendu egokia ez eragozteko (eskaera hori justifikatzeko arrazoirik baldin badago), eta EKari aldaketa ororen berri emango dio.

3. Esleipendun erakundeak (kontratistak) kontratua gauzatuko duen lantaldearen gaineko zuzendaritza ahalmena, enpresa guztiek berezko dutena, modu erreal, eraginkor eta etengabean egikaritzeko betebeharra hartuko du bere gain.

   Bereziki, honen guztiaren ardura izango du: soldaten negoziazioa eta ordainketa, baimenak, lizentziak eta oporren onarpena, baja edo hutsune kasuetan langileen ordezkapena, Gizarte Segurantzaren arloko legezko betebeharrak –dagokionean, kotizazioak eta prestazioak ordaintzea barne–, lan arriskuen prebentzioaren arloko betebeharrak, diziplina-ahala erabiltzea, baita langilearen eta enplegu-emailearen arteko kontratuzko harremanetik eratortzen diren eskubide eta betebehar guztiak ere.

4. Esleipendun erakundeak (kontratistak) bere langile-taldeko kidea den koordinatzaile edo arduradun bat, gutxienez, izendatu beharko du, eta hark ondoko betebeharrak izango ditu:

   a. EKaren aurrean adjudikazioa eskuratzen duen Erakunde Esleipendunaren (kontratistaren) solaskide gisa jardutea; batetik enpresa kontratistaren eta kontratuari atxikitako lantaldeko kideen arteko komunikazioa bideratuz eta, bestetik, enpresa kontratistaren eta EKaren arteko komunikazioa bideratuz, kontratua gauzatzetik eratorritako auzi guztietan.

   b. Lana kontratua gauzatzeaz arduratuko diren langileen artean banatzea eta langile horiei kontratatutako zerbitzua emateko beharrezkoak diren aginduak eta jarraibideak ematea.

   c. Lantaldeko langileek esleitu zaizkien funtzioak ondo betetzen dituztela gainbegiratzea, baita langile horiek lanera joaten direla kontrolatzea ere.

   d. Kontratua gauzatzeari atxikitako langileen oporraldia antolatzea, horretarako kontratista EKarekin ondo koordinatuz, zerbitzuaren funtzionamendu egokia ez eragozteko.

   e. EKari kontratua gauzatzeari atxikitako lantaldearen osaeran sortzen diren aldaketak, noizbehinkakoak edo iraunkorrak, jakinaraztea.

   f. Kontratu honen xede den zerbitzuari atxikitako pertsonak EKaren zentroren batean daudenean, haiek EKaren segurtasun-arauak betetzen dituztela bermatzea eta zerbitzuaren adjudikazioa eskuratzen duen erakundearen langile gisa identifikatuko dituzten bereizgarriak dituztela bermatzea.

Esleipendun erakundeak (kontratistak), klausula honetan bere gain hartutako betebeharrak urratzearen ondorioz, EKari kopuru batzuk ordaintzeko zigorra ezarriko baliote enpresa kontratistarekiko solidaritateagatik, erakunde kontratatzaileak kontratistari ordaindutako kopuruak ordainaraziko dizkio. Horretarako, EKak egoki eta komenigarria den edozein akzio, administratibo edo judizial, abiatu ahal izango ditu, ordaindutako kopuru guztiak berreskuratu arte.

4.2 Baldintza partikularrak

Zehazki, kontratazio honen xede diren zerbitzuak zuzen emateko, adjudikazioa eskuratzen duen erakundeak honako langile hauek izan beharko ditu gutxienez:

i. Zerbitzuaren koordinatzaile BAT (1)

Kontratatutako zerbitzuak koordinatzeko eta gainbegiratzeko, adjudikazioa eskuratzen duen erakundeak, arestian aipatu den bezala, zerbitzuaren arduradun bat izendatu beharko du. Pertsona horrek bitartekari-lanak ez ezik, egin beharreko lanak zuzendu eta koordinatu beharko ditu. Koordinazio-lanak honako hauek izango dira: EKaren jarraibide orokorrak jasotzea, proiektuen gauzatzea koordinatzea, haien kalitate-maila egiaztatzea, proiektuen erantzukizuna bere gain hartzea eta egin beharreko lanen plangintza, jarraipena eta kontrola egiteaz arduratzea.

Pertsona horren datuak emango dira, eta pertsona hori izango da Erakunde Kontratatzailean kontratuaren ardura duenarekin harremanetan egongo dena.

Zerbitzuaren arduradunak **autonomia eta kudeatzeko eta erabakiak hartzeko gaitasun** nahikoa izan beharko du, kontratuari buruzko EKaren edozein premiari, kontsultari edo beste edozein gertaerari azkar erantzun ahal izateko.

Aldizka bilduko da (EKak zehaztutako aldizkakotasunaren arabera), zerbitzuaren alderdi guztiak jorratzeko.

Solaskidetza-zerbitzua kontratuaren prezioaren barruan dagoela ulertuko da.

Lokalizatzeko moduan egon beharko du, bulegoko orduetan zerbitzuaren edozein alderdi kudeatzeko. Proposatutako koordinatzailearen eta EKaren arteko ohiko komunikazio-bideak honako hauek izango dira: aurrez aurreko bilerak, posta elektronikoa, telefono finkoa eta telefono mugikorra, eta aurrez aurrekoak ez diren bilerak egiteko balio duen bideokonferentzia-tresna bat.

Gehienez ere 48 orduko epean erantzun beharko du, EKak zalantzaren edo galderaren bat bidaltzen badio.

Hala ere, kontratuaren AKPAren klausula espezifikoen *"22.2.2 Formulak aplikatuz automatikoki ebaluatu daitezkeen irizpideen"* atalean definitutako esleipen-irizpideen arabera, erakunde hautagaiek hobekuntzak eskaini ahal izango dituzte erantzuteko denboran.

ii. Zerbitzua gauzatzeko profesionalak

Talde operatiboak, kontratazio honen xede diren lanak behar bezala egiteko beharrezko esperientzia eta prestakuntza izan beharko ditu. Gutxienez, eta zerbitzuaren koordinatzaile arduradunaz gain, proposatutako taldeak profil profesional hauek izan beharko ditu:

- Esperientzia izan beharko du profesionalak euskararen erabileran trebatzen.

5. ZERBITZUAREN JARRAIPENA

EKaren aldetik Kontratuaren Arduraduna izango da Erakunde Kontratistak kontratu honen objektu den edozein jarduketa bideratzeko erabiliko duen figura. Garrantzitsua izango da lanen bilakaeraren aldizkako jarraipena egitea.

Xede hori lortzeko, aldian-aldian bilerak egingo dira, jarraipen fisiko edo telematikakoak (EKak ezarritako epearen eta baliabideen arabera). Bilera horietan, aipatutako objektuaren eboluzioa edota aurrerapenak aztertuko dira. Hau guztia, gestioan zorroztasuna mantenduz, hots, seihileko jarraipen txostenak, bileren aktak edota beharrezkoan izan daitezkeen beste edozein dokumentu eginez.

Esleipenduna arduratuko da bilera horietatik eratorritako dokumentazioa prestatzeaz, dokumentazioaren egokitasuna eta zuzentasuna bermatuz. Horri esker, egindako jarduerei buruzko ziurtasuna/trazabilitatea lortu ahal izango da (bileren aktak, horiei buruzko txostenak, etab.), eta, horrela, erantzukizun proaktiboaren printzipioa bete ahal izango da.

6. LANAREN, GIZARTE SEGURANTZAREN ETA LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNAREN ARLOKO JARRAIPENA ETA ONARPENA

Kontratazio honetan aurreikusitako laneko, gizarte segurantzako eta segurtasun eta osasun arloko betebeharren jarraipena eta egiaztapena egiteko, EKak "Koordinatu" plataformara sartzeko aukera emango dio kontratistari.

Plataforma hori behar bezala prestatuta dago kontratua gauzatzeak berezko dituen lan-arloko, gizarte-segurantzako eta segurtasun eta osasuneko betebeharrak betetzeari buruzko dokumentazioa online trukatzeko.

Hori dela eta, "Koordinatu" plataformarako sarbidea gaitu ondoren, kontratistak eskatutako dokumentazioa transferitu beharko du plataformak berak adierazitako epean, eta, bereziki, honako hauei buruzkoa:

- Zerbitzua ematera atxikitako langileen zerrenda.
- Hainbat segurtasun-ziurtagiri (ITA, TC1, TC2, etab.)
- Prebentzioaren eta laneko segurtasunaren arloko betebeharrak betetzeari buruzko hainbat ziurtagiri (arriskuen identifikazioa, prestakuntza espezifikoa, gaitasun-ziurtagiriak, etab.).
- Bestelako egiaztagiriak.

Esleipendun suertatzen den erakundeak (eta, beraz, kontratistak), kontratatutako zerbitzuaren gauzatzearen zati bat azpikontratatzen badu, aurreko betebeharren egiaztagiriak eskatu beharko dizkie azpikontratatutako erakundeei, eta baldintza berberetan entregatu beharko ditu Koordinatu plataforman.

7. ZIGORRAK

Administrazio Klausula Partikularren Agiriaren (AKPA) Klausula Espezifikoen **13.- ZIGORRAK** Puntuan azaldutakoak izango dira.

8. HAUTAGAIEK AURKEZTU BEHARREZKO DOKUMENTAZIOA

Entitate lizitatzaileak, AKPAren Klausula Espezifikoen 24. Klausulan xedatutakoaren arabera aurkeztu beharko dituzte beraien eskaintzak:

8.1 C Gutun-azala: Balio-iritzi batean oinarrituta ebaluatu behar den eskaintzari buruzko dokumentazioa

AKPAn adierazitako ebaluazio irizpideen arabera, entitate hautagaiek AKPAren IV.1 ERANSKINEAN adierazitako dokumentazioa daukan proposamena aurkeztu beharko dute C gutun-azalean.

8.2 .- B gutun-azala: Formulak aplikatuz automatikoki ebaluatu daitekeen eskaintzari buruzko dokumentazioa

Entitateek euren eskaintzak aurkezteko, Administrazio Klausula Partikularren Agiriaren III.1 ERANSKINA: FORMULA MATEMATIKOAK delakoan adierazitako taula-eredua erabili beharko dute.